

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**



**KAZETARITZAKO GRADUA**

**IKASTURTEA 2018-2019**

**FOTOKAZETARITZA ETA MEMORIA HISTORIKOA:  
EGUNGO EGOERA HOBIEN BILAKETATIK  
OMENALDIETARA**

**MEMORIA**

EGILEA: Sara Amatriain Jiménez

ZUZENDARIA: Maria González Gorosarri

2019ko maiatzaren 28a

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>1</b>
<b>2. Proiektuaren ikuspegia</b> .....	<b>1</b>
<b>3. Erabilitako materialak</b> .....	<b>3</b>
3.1 Argazki-kamera .....	3
3.2 Ahots-grabagailua.....	3
3.3 InDesign.....	3
<b>4. Estetikaren intenzionalitatea</b> .....	<b>4</b>
4.1 Alde fotografikoa .....	4
4.2 Maketazio irizpideak.....	5
<b>5. Fotoerreportajeak</b> .....	<b>7</b>
5.1 Salaketa-fotoerreportajea .....	8
5.2 Fotoerreportaje narratiboa.....	9
5.4 Fotoerreportaje soziala.....	12
5.5 Kale-fotoerreportajea .....	14
<b>6. Etorkizuneko proiektuak</b> .....	<b>16</b>
<b>7. Bibliografia</b> .....	<b>17</b>
7.2 Elkarrizketak eta hitzaldiak.....	19

# 1. Sarrera

Proiektuaren ardatz nagusia memoria historikoa da eta horren aukeraketak ikuspegi sozialarekin du zerikusia. Izan ere, gertaera historikoak gaur egun gizartean duen zuloa eta horrek sortu dituen gatazka sozial, kultural eta politikoa erreparatu eta gero, proiektu honen ideia sortu zen. Ikuspegi sozial horrek lotura emozionala sortu du proiektuan zehar, informazio-iturri batzuekin sortu den harremana dela-eta, eta baita nire familiarekin ere, azken atalean azalduko den bezala.

Justizia Ministeritzak Memoria Historikoaren aipamena egiten du bere legediaren barruan. Espainiako abenduaren 26ko 52/2007 Memoria Historikoaren Legearen arrazoien azalpen atalaren arabera, memoria pertsonala eta familiarrekin lotutako alderdiek, izaera publikoko gatazken eragina izan dutenean, hiritartasun demokratikoaren parte dira. Horren harira, 1936ko Gudaren ondorioen kalteak pairatu dituzten familien eskubide indibidualak azpimarratzen ditu legeak: “Se reconoce, en este sentido, un derecho individual a la memoria personal y familiar de cada ciudadano” (BOE, 310. zenbakia, arrazoien azalpena). Abenduaren 26ko 52/2007 Memoria Historikoaren Legearen 11. eta 14. artikuluek neurri eta baliabideak aurreikusten dituzte, administrazio publikoek interesatuak dauden pertsonen, familia kide horien lokalizazio lana erraztu ditzaten; baita aurkitzekotan desagertuaren identifikazioa.

Estatuko Memoriaren Foro Federazioaren arabera aldiz (FEFFM, 2018), Memoria Historikoaren Legeak familiari modu pribatu eta eskusiboan eskaintzen dio Nazio Batuek definitutako egiaren eskubidea. Eskubide hau aldiz, gizarte osoaren, eta hortaz, eskubide kolektibo bat bezala definitzen du federazioak, haren hitzetan “gertaeren errepikapen, negazionismoa edo errebisionismo historiko soziala saihesteko” (FEFFM, 2018:3).

Estatuko Memoriaren Foro Federazioak Memoria Legea eraberritzeko eginiko proposamen dokumentuaren arabera, memoria historikoaren kontzeptua modu pribatu bezala definitzean, Espainiako estatuak nazioarte mailan dituen betebeharreri uko egiten die. Betebehar horien artean, Erromako Giza Eskubideen hitzarmena aipatzen du federazioak, zeinak nabarmentzen duen, Estatuak giza eskubideen bortxaketen biktimak direnei baliabideak erraztu behar dizkiola justizia eskubidea burutzeko (FEFFM, 2018:3).

## 2. Proiektuaren ikuspegia

Gratu Amaierako Lan honetan gaurkotasunezko gai baten aukeraketa egin eta fotokazetaritza ikuspegitik bost fotoerreportaje garatzea eskatzen da. Bost fotoerreportajeen gai nagusia berdina izan arren, hauek desberdinak behar zuten izan. Hau horrela izanda, salaketa fotoerreportajea, fotoerreportaje narratiboa, artistikoa, soziala, eta kale-fotoerreportajea izan dira egin beharreko bost fotoerreportajeak. Bestalde, horien garapena azaltzen duen memoria bat eskatzen zen, hain zuzen ere, hemen aurkeztu dena.

Gaur egungo fotokazetaritzaren inguruko proiektua izanik, gaurkotasunezko gertaera baten beharra sortzen da, eta aldi berean bost fotoerreportaje desberdin egiteko eduki adina sor dezaken gaia. Zenbait alderdi politiko eta gizartearen parte batek Memoria Historikoaren Legea eraberritzeko egiten duten eskaera eta ohiartzun soziala ikusita, gai hori gehiago aztertzearen nahia sortzen da. Gaia hori izanda, errealtate ezkutatu baten inguruan informatu eta salatu nahi izan dut eta horretarako sentimenduetara jo nahi izan dut ateratako argazkiekin, helburu hori modu horretan lor nezakeelako.

Fotokazetaritza proiektua izanik, hasteko *Imágenes de un siglo en España: una mirada a la historia y la vida cotidiana* (Armada eta Sánchez, 2010) argazki liburu bat erreparatzen egon nintzen, horien izaera ikusi eta ideiak hartzeko helburuarekin. Aipatutako lanean, bereziki deigarriak eta aldi berean gogorak iruditu zitzaizkidan 1936. urtetik aurrera eta gerraostean ateratako argazkiak.

1936ko Guduan eta frankismo garaian desagertutako pertsonak eta horien gorpuzkiak inoiz ez ez agertzeak familia askoren baitan zulo bat osatzen dutela ikusi nuen hainbat albistetan behin baino gehiagotan. Gaur egun egoera hori deshobiraketan beharrean eta horien eskaeretan laburtzen da. Izan ere, *eldiario.es* egunkari digitalak 2015. urteko abuztuaren 10ean argitaratutako albiste baten arabera, 2000. urtetik 2012. urtera arte (12 urtean), 332 hobi ireki ziren deshobiraketak gauzatzeko (Baquero, 2015). “Gobernuak 2000 ehorzketa zenbatzen ditu baina ARMH erakundeak (Memoria Historikoa Berreskuratzeko Erakundea), bikoitza baino gehiago egon daitezkeela, baina ikerketa seriorik egon ez dela salatzen du”, gehitu zuen egunkariak albiste horren harira.

Francisco Etxeberriari abenduaren 5ean nik egindako elkarrizketan, forentseak alderdi frankisteko biktimak hilobietan eta familia kideek egin nahi izan dituzten omenaldiekin daudela aipatu zuen. 1936ko Gudako biktimen tratamenduaren aldea eta batez ere desoreka ikusita, beste arrazoi bat sortu zen proiektu honen fotoerreportajeak lotzen dituen gaia memoria historikoa izateko.

Fotokazetaritza proiektu honen azken emaitza lortu arte, hainbat zati lotu behar izan dira, eta zati hauek, hasierako ideia orokorra sortu zenetik osatzen dira, ikasturtea iraun duen prozesu baten ondoren. Fotokazetaritza proiektu hau garatu ahal izateko bilaketa eta ikerketa sakon bat egin da, ideia orokor batetik abiarazi eta orain aurkezten den proiektura iritsi ahal izateko. Aipatzekoa da bestalde, Nafarroa hartu dudala eredutzat fotoerreportajeak egitean, baina beste kokapen batzuk zehazteko ahalegina egin dut, hala nola Aranzadi Zientzia Elkartera hurbildu nintzenean edota Gurseko omenaldian egon nintzenean. Hortaz, Nafarroa abiapuntu hartu dudala esan dezaket eta horren arrazoa gertutasuna izan da batez ere.

Proiektuari forma eman ahal izateko helburuarekin, Rosa Isabel Vázquez (2017) argazkilari eta irakaslearen *El proyecto fotográfico personal* liburua erabili dut gida bezala. Proiektu hau gauzatzeko argazkilariak aipatzen dituen honako urrats hauek eman dira, jarraian azalduko direnak:

- “Idea edo gaia aukeratzea
- Ikertzea eta proiektuaren dokumentazioa
- Saiakuntzak egin
- Proiektua zehaztu
- Argazkiak atera
- Editatu
- Azken aurkezpeneko formatua definitu “ (Vazquéz, 2017: 24-25)

Fotokazetaritza proiektu honen kasuan, aurretik aipatutakoaz gain, beste urrats bat gehitu da, funtsezkoa proiektuaren azken emaitzarako: Maketazioa InDesign programaren bitartez, bost fotoerreportajeak elkartzen dituen dokumentu bakar bat sortu dudana arte.

## **3. Erabilitako materialak**

### **3.1 Argazki-kamera**

Argazkiek osatzen dute proiektuaren ardatz nagusia. Nikon D3300 reflex argazki kamera erabili da hauek ateratzeko, eta 18-55mm AFP CX VR objektiboa. Ateratako argazki guztien artean ahalik eta informazio gehien eskaintzen dutenak aukeratu ditut fotoerreportaje guztietan, aldi berean emozioetatik distantzia hartuta.

### **3.2 Ahots-grabagailua**

Informazio-iturrien elkarrizketak eta testigantzak grabatzeko telefono mugikorrean daukadan ahots grabagailua erabili dut. Hau aukeratu dut Internet bidez grabaketak nire e-posta pertsonalera bidali eta horrela, hauek gordetzeko aukera izan dudalako. Elkarrizketak ez nituela galtzen ziurtatu dut horrela. Osotara, bost fotoerreportajeak egiteko hamasei ahots-grabaketa egin ditut, elkarrizketak eta hitzaldiak kontuan hartuta.

### **3.3 InDesign**

Proiekturako erabilitako material fisikoez gain, InDesign ordenagailu programa aipatu nahi dut, beharrezkoa izan delako bost fotoerreportajeen azken emaitzarako. Proiekturako Windows ordenagailu bat erabili dut eta InDesign programa lortzeko, Adobe Creative Cloud bitartez, hau deskargatu, eta zortzi hilean 24, 19 euroko kuota ordaindu dut.

## 4. Estetikaren intenzionalitatea

### 4.1 Alde fotografikoa

Fotoerreportaje bakoitza egiteko 40 argazki inguru atera ditut eta horietatik 30 – 35 aukeratu eta maketatu ditut. Argazkiak ateratzeko orduan, planoen nolakotasuna kontuan hartu dut eta informazio gehien eta konposizio aldetik egokien ateratakoak aukeratu ditut.

Irakurleak jasotzen dituen konnotazio ideologikoak etengabe ager daitezkeela kontuan izan dut. Irudien itxuraren harira, Kazetaritza Graduko Fotokazetaritza irakasgaiaren programa teoriko-praktikotik abiatu dut lana. Hau horrela izanda, programan azaltzen diren eta jarraian aipatuko ditudan kodeak erabilgarriak izan dira argazkiak atera, moztu eta maketatzeko orduan:

- “Espazio kodea
- Keinu kodea
- Eszenografia kodea
- Sinbolo kodea
- Kode grafikoa
- Erlazio kodea “ (Erausquin, 1995: 132-152)

Kode guztien artean aipatzekoak izan dira bereziki espazio, keinu eta sinbolo kodeak proiektuan zehar, hauek izan baitira material informatiboa produzitzeko orduan gehien errepikatu direnak. Jarraian, prozesu honen alderdi deigarrienak aipatuko dira.

Espazio kodeari dagokionez, errealitate mugatua eta informazio gehien eskaintzen duena aukeratu dut. Hau da, argazkietan agertzen diren subjektuak baliagarriak izaten saiatu naiz, baina beharrezkoa den irudietako airea hartuta. Kode honi dagokionez, salaketa fotoerreportajearen eta fotoerreportaje sozialean lehen plano eta xehetasun planodun argazkien kopurua handia edo gehienena izan da, izan ere baliabide hori erabili nahi izan dut argazkien indarra eta esanahia handitzeko helburuz. Plano orokorreko argazkiak urriak izan dira bi fotoerreportaje hauetan eta erabili ditudanak fusilatutako presoek egindako ibilbidea erakusteko izan dira.

Keinu kodean, salaketa eta fotoerreportaje narratiboan bereziki garrantzitsuak izan dira Aranzadi elkarteko langileak lanean diharduteneko aurpegierak, baita kale-fotoerreportaje adinekoenak, emozioa transmititzen baitute, eta baita fotoerreportaje sozialaren protagonistenak.

Sinbolo kodean nabarmentzekoak izan dira gorpuzkiak, batez ere buruhezurrak. Heriotzaren ikurra transmititu nahi izan dut horiekin eta kode berdinarekin jarraituz, fotoerreportaje artistikoan loreen presentzia azpimarratu nahi dut, loreek biktimizekiko errespetua irudikatzen baitute. Horregatik fotoerreportaje artistikoan irudi handi batean lehen orrialdean kokatu dut lore baten irudia, arreta deitzeko modu bat bezala. Azkenik, kaleko soslaiaren fotoerreportajearen bandera errepublikarrak nagusitu dira sinbolo bezala. Azken hauek, sinbolo oso indartsuak dira.

Erlazio kodeari dagokionez, proiektu osoan zehar egindako argazki guztietan helburu berdina izan dut kontuan, eta hortaz argazkietako elementuen arteko erlazioarekin emozioa transmititu nahi izan dut.

## 4.2 Maketazio irizpideak

InDesign CC 2019 programarekin maketatu ditut bost fotoerreportajeak. Programa honekin izandako aurretiko esperientzia oso murrizta zen eta beraz, esan dezaket hasieratik ikasi behar izan dudala hau erabiltzen eta jakintza hori erreportajeek eskatzen zutenera moldatzen.

Bost fotoerreportajeak DIN A4-ko formatuan maketatu ditut, formatu bertikalean. Hortaz, fotoerreportajeen lehen orri guztiak orri bakarrera maketatu ditut eta lehen orrien aurrean orri txuri bat erantsi dut. Times New Roman izan da bost erreportajeetarako erabilitako letra tipoa. Tituluetarako tamaina aldakorra izan da, izan ere leerro bakarrera maketatu ditut, eta horregatik horien luzeeraren arabera, handiagoa edo txikiagoa ipini dut. Hau horrela izanda, erabilitako tamainarik handiena 50 puntukoa izan da. Erreportajeen gorputzetarako 18 puntuko tamaina erabili dut eta argazki-oinetarako 16 puntukoa. Bestalde, fotoerreportaje mota zehaztu dut hasieran goiko eskuineko zatian. Hau 18 puntuko tamainarekin, letra larriz eta Baskerville Old Face letra tipoarekin adierazi dut.

Argazkiak maketatzeko orduan fotoerreportajeen egiturari dagokionez, salaketa fotoerreportajeen eta fotoerreportaje sozialean garrantziaren arabera ordenatu dira argazkiak. Horrez gain, fotoerreportaje guztietan, lehen orrialdean iruditu zaizkidan ateratako argazkirik deigarrienak ipini ditut, horiei garrantzia gehitzeko. Bestalde, argazki guztiak azpigaika multzokaturik maketatu ditut, hau da, orrialde bakoitzean, ezaugarri berdinak edo zerbait komunean duten argazkiak ipini ditut. Fotoerreportajeen koherentzia mantentzea izan da horren helburua.

Orrialdeen fondo txuri kolorez mantentzea erabaki dut, argazkiak direlako elementu garrantzitsuenak bost erreportajeetan eta iruditu zait modu honetan, hau da, fondo txuriarekin, argazkiak modu argiago batean ikusten direla eta eman nahi izan didan garrantzia ez dela galtzen. Bestalde, testua hobeto irakurtzen dela iruditu zait, bisualki orokorrean argitasun handiagoa dagoelako.

Maketazioarekin jarraituz, orrialdeen ertzetan erreportajeen gai orokorra azpimarratu nahi izan dut eta horretarako argazki zahar baten markoa erabili dut, irakurlea 80 urte atzera garraiatzeko eta aipaturiko gai nagusia, memoria historikoa, azpimarratuz.

Bost fotoerreportajeen aurkibidea izan da maketatu dudana azken elementua. Izan ere, hauek bukatuta izatea beharrezkoa zen, batetik, portaden argazkiak tamaina txikian jarri ditudalako, eta horretarako beharrezkoa zen argazki hauek zehaztuta izatea, eta bestetik, fotoerreportaje bakoitza zer orrialde zenbakian hasi eta zeinean bukatzen den zehazteko.

Fotoerreportajeen kokapenaren ordena hauek produzitu eta garatu ditudan dataren arabera ordenatu ditut eta aurkibidean ere horrela ordenaturik daude. Aurkibidea bi orrialdeetan maketatu dut, argazkiak gehitu ditudalako eta horien tamaina txikia izan arren, orrialde bakar bat mugatuegia zela iruditu zaidalako bost fotoerreportajeak aukibidean iragartzeko. Hau horrela izanda, aurkibidearen ezkerreko orrialdean “aurkibidea” titulua, salaketa fotoerreportajea eta fotoerreportaje narratiboaren tituluak, orrialdeak, eta dagozkien portaden argazki txikiak adierazi ditut. Eskuineko orrialdean bestalde, fotoerreportaje artistikoa, soziala eta kale-soslaiaren fotoerreportajeen datuak ageri dira.

Aurkibidearen maketazio-irizpideei dagokienez, fotoerreportajeetan erabilitako marko berdina erabili dut, argazki zahar baten fondoa irudikatzen duena hain zuzen ere, bost fotoerreportajeekin koherentzia mantentzeko eta aurkibidearekin lotura bat egiteko asmoz. Aurkibidean erabilitako letra tipoa Times New Roman izan da, fotoerreportajeetan erabilitako berdina, tipografia argia dela iruditzen zaidalako, eta gaur egun kasu batzuetan ohitura aldatu eta beste tipografiak erabiltzen diren arren, prentsan asko erabili den letra tipoa delako. Izan ere, infoGráfica diseinu webgunearen arabera (Colon, 2013), Times New Roman egunkariaren iturri tipografiko erabilitakoen artean dago.

Aurkibidearen fondoa ere, fotoerreportajeetan bezala, txuria mantendu dut, argitasuna eskaintzeko asmoz, letra eta zenbakiak hobeto desberdindu eta ulertzen direlako. Letren tamanari dagokionez, aurkibidearen titulua letra lodiz eta 75 puntuko tamainakoa idatzi dut. Fotoerreportaje motak desberdintzeko, bakoitzaren tituluaren gainean, zein motari dagokion idatzi dut: 1. Salaketa fotoerreportajea, 2. fotoerreportaje narratiboa, 3. fotoerreportaje artistikoa, 4. fotoerreportaje soziala eta 5. kale-fotoerreportajea. Hauek letra larriz idatzi ditut, 26 puntuko tamainarekin. Tituluak aldiz, kurtsiban idatzi ditut, 32 puntuko tamainarekin, eta orrialdeen zenbakiak formatu normalean eta 28 puntuko tamainarekin. Orrialdeen zenbakiak zenbatzeko orduan orri txuriak kontutan hartu ditut eta aurkibidean zenbakiturik azaltzen dira. Hau da, fotoerreportajeak orri txuriarekin hasten dira.

Aurkibidearen bi orrialdeen espazioa ondo banatu eta fotoerreportaje bakoitza hobeto sailkatzeko, bost laukizuzen sortu ditut, eta bakoitzean, dagokionaren izenburu eta orrialdeen zenbakiak, portadako argazkiarekin batera jarri dut. Hau, InDesigneko laukizuzen tresnarekin egin dut, eta forma hauek ikusteko beltz kolorez jarri ditut laukizuzenen ingurua.

Proiektuarekin izandako arazo handiena maketazio atalarekin izan da. Aurretik aipatu bezala, proiektua egiten joan naizen heinean ikasi behar izan dut InDesign programa erabiltzen. Hasieran, horizontalean eta 1366 x 768 px tamainako formatuan hasi nintzen maketatzen, eta salaketa fotoerreportaje osoa formatu horretan maketatu nuen, bertikal bikoitzean maketatzea erabaki nuen arte. Proiektuan zehar sortutako bigarren arazoak portadako orrialdearekin du zerikusia. Izan ere, ez nuen kontutan hartu lehen orrialdea bakarrik doala eta maketatzen hasi nintzen portadako orrialde hori aintzat hartu gabe. Aldaketekin jarraituz, argazkiak behin aukeratu eta maketatuta nituenean, horietako batzuei bi orrialdeetako espazioa eskaintzea erabaki nuen bi arrazoiengatik: Batetik, argazki horien garrantzia handitzea, eta bestetik, fotoerreportajeak arin eta ikusgarriagoak egitea. Azken honekin jarraituz, zuzendu beharreko



hurrengo pausoa, aipatutako bi orrialdeko argazki horiek bi orrien erdigunea zeharkatzea zen, mugarik ez dagoela erakusteko.

Hala ere, aurretik aipatu ditudan arazo edo aldaketak erraz zuzendu nituen eta ez zuten denbora askorik behar izan. Proiektuan zehar maketazioarekin izandako arazo nagusia testuarekin izan zen, hain zuzen ere, paragrafoak argazki eta orrialde bakoitzaren egituran egokitzearekin, eta ezbehar hau fotoerreportaje guztietan errepikatu da. Izan ere, zerbait idatzi, eta testu justifikatuan jarri eta gero, paragrafoetako lerro batzuetan hitz solteak geratzen zitzaizkidan. Horren ondorioz, testu zati horiek goitik behera berrikusi behar izan ditut eta lerroen artean gutxi gora behera hitz kopuru berdina zeudela ikusi eta gero, ordenagaiuko “enter” teklaren bitartez lerro hauek moztu ditut. Horrela, testu zatiak orrialdeen egitura osoarekin integratzea lortu dut. Aipatzekoa da bestalde, hasieran aurreikusita nituen testu zati batzuk kendu ditudala gerora, batez ere argazki-oinetan jarritako esaldiak. Horietako batzuk kentzea erabaki dut egindako azken berrikusketetan, informazio gehiegi edo egindako maketazioa kargatuegia zegoela iruditu zaidalako eta esan bezala, proiektuaren garrantzi gehiena argazkiei eman nahi izan dieldalako.

Maketazioarekin zerikusia duen azken aldaketa bost fotoerreportajeak bukatu eta aurkibidea egin eta gero egin behar izan dut. Aurretik aipatu bezala, formatu bertikal bikoitzean maketatzea erabaki dut eta horrela eginda, erreportaje bakoitzaren lehen orria txuriz utzi behar da, PDF formatura pasatzean binaka azaltzen baitira. Azken horretaz bost erreportajeak eta aurkibidea PDF formatu bakarrean jarri nahi izatean ohartu naiz. Hortaz, fotoerreportaje bakoitzaren egitura aldatu dut eta orri txuri bat gehitu dut bakoitzaren azken bertsioaren aurrean. Behin dokumentu hauek modu egokian maketaturik izanda, aurkibidea eta erreportajeen bost artxiboak batu ditut, denak PDF formatuan. Azken hau, Adobek eskaintzen duen artxiboak konbinatzeko aukeraren bitartez egin dut. Azkenik, aurkibidearen lehen bertsioan jarritako orrialde zenbakiak ere aldatu ditut, txertatutako orri txuriak ere zenbatu ditudalako.

## 5. Fotoerreportajeak

Aurkezten den proiektua bost fotoerreportaje desberdinetaz osatzen da, eta gai orokor batek lotzen ditu hauek: Memoria historikoa. Proiektuak gai orokor bat izan arren, fotoerreportajeak errepikakorak ez izatea ahalegindu naiz, memoria historikoak bere gain hartzen dituen alderdi desberdinak landuz. Fotoerreportajeen izaera edo tipologia desberdina izanik, honako ordena honetan gauzatu ditut, proiektua InDesign programako bost dokumentuetara laburtu den arte:

1. Salaketa fotoerreportajea
2. Fotoerreportaje narratiboa
3. Fotoerreportaje artistikoa
4. Fotoerreportaje soziala
5. Kaleko soslaia

Ordena hau proiektua aurrera joan ahala erabaki dut, eta prozesu horretan erabakigarriak izan dira fotoerreportajeen gaien aukeraketa eta baita informazio-iturrien eskuragarritasuna ere. Hauek jarraian dauden azpiataletan azalduko dira xehetasun handiagoarekin.

Erreportajeen dokumentazioa eta horiek sortzeko informazioa lortzeko, iturri pertsonalak eta iturri dokumentalak erabili ditut. Proiektuan zehar agertutako iturri bat, Francisco Etxeberria forentsea, horren bitartez lortutako informazioa dela-eta, bi erreportajeetan erabili dut: salaketa eta fotoerreportaje narratiboan. Jarraian fotoerreportaje bakoitzerako erabilitako iturriak zehaztuko dira, baita horiekin kontaktua ezartzea nolakoa izan den.

## 5.1 Salaketa-fotoerreportajea

Salaketa-fotoerreportajea Etulainen (Nafarroa) egindako deshobiraketa baten ingurukoa da eta salaketa ikuspegia emateko argazki deigarriak ateratzen ahalegindu naiz. Ateratako argazki guztien artean hogeita hamabi argazki aukeratu eta maketatu ditut. Hauek, abenduaren 16an atera nituen. Jarraian, fotoerreportajeak osatzeko erabili ditudan iturri personal eta dokumentalak azalduko ditut.

### Informazio-iturri pertsonalak

Francisco Etxeberria

Memoria historikoaren gaia zehaztu eta gero, berehala Aranzadi Zientzia Elkartearekin kontaktuan jarri nintzen e-posta bitartez. Elkarteko idazkaritzatik Francisco Etxeberria antropologo forentsearekin kontaktuan jarri zidaten bere e-postaren bitartez eta geratzeko egun eta hitzordua zehaztu eta gero, abenduaren 5ean Aranzadi elkartera hurbildu nintzen forentseari elkarrizketa bat egiteko asmoz. Iturri pertsonal honek eskainitako informazioa deshobiraketa lanen helburua ezagutarazteko eta lan prozesua nolakoa den ikustarazteko baliogarria izan da batez ere. Bi helburu hauek salaketa eta narrazio fotoerreportajeen bitartez transmititu nahi izan ditut hurrenez hurren.

Fermin Ezkieta Yaben

Etulainera hurbildu nintzenean deshobiraketaren argazkiak ateratzeko abenduaren 16an, Fermin Ezkieta idazlea zegoen, izan ere bera izan zen bertan egon zitezkeen gorpuzkien berri informatu zuen pertsona. Ezkieta idazle eta ikerlaria da eta *Los Fugados del Fuerte de Ezkaba* (Ezkieta, 2017) liburua idatzi du San Kristobalگو kartzelako ihesaldiaren inguruan urteak ikertzen egon ostean. Aranzadi elkarteko kideek deshobiraketa gauzatzen zihoazen bitartean, idazleak datuak eskaini zituen biktimen inguruan eta informazio hori eta horren ostean egindako elkarrizketa bat informazio bezala erabili ditut erreportaje honetarako.

## Informazio-iturri dokumentalak

Hainbat ikertzaile eta adituren liburuak izan dira fotoerreportaje hau osatzeko erabili ditudan iturri dokumental esanguratsuenak.

Hasteko, iturri pertsonaletan aipaturiko Ezkietaren (2017) *Los fugados del Fuerte de Ezkaba* liburua baliagarria izan da presoen eta kartzelaren datu kuantitatiboak ezagutzeko, eta baita kartzelaren barneko egoeraren ideia bat egiteko ere. Liburuekin jarraituz, Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkartearen sortzaile den Emilio Silvaren eta Santiago Macías idazlearen liburu bat kontuan izan dut: *Las fosas de Franco: los republicanos que el dictador dejó en las cunetas* (Silva eta Macías, 2003: 307) Gainera, Amaia Kowaschen (2017: 42) liburu bat erabili dut, emakumeek garaiko presoekin izandako elkartasuna eta horien beharra islatzen duena: *Sareak ehotzen: San Kristobal Fuerteko presoekin elkartasuna izan zuten emakumeak (1934-1945)*.

Iturri dokumentalekin jarraituz, Nafarroako hobien zenbatekoa erakusten duen mapa bat erabili dut, gutxi gorabeherako kopuruen berri izateko. Mapa horretan (Nafarroako Gobernuak, 2017), esku hartu den hobien zenbatekoa, esku hartu ez den hobien zenbatekoa, aztertu diren hobiak eta bestelako tokiak azaltzen dira irudikaturik.

*Ezkaba* aldizkariko urtarrileko zenbakian argitaratutako artikulua bat erabili dut bestalde (Abasolo, 2019: 14-15), Nafarroan frankismo garaian bizi izandako egoeraren inguruan hitz egiten duena. Azken informazio honekin lotuta, *Diario de Noticias* egunkarian argitaratutako berri bat erabili dut (Iribarren, 2018: 8), batez ere biktimen kopuru zehatza ezagutzeko. Azkenik, 2018ko azaroaren 27an Pla, Querejeta eta Errastiren (2018) *Lur azpitik lur-azeleratuz* erakusketa dokumentala ikustera hurbildu nintzen, San Kristobal gotorlekua eta bertan preso izandakoen berri izateko.

## 5.2 Fotoerreportaje narratiboa

Fotoerreportaje narratiboa Aranzadi Zientzia Elkarteko deshobiraketa lanen prozesuan zentratu dut eta hori islatzeko hogeita hamabi argazki maketatu ditut. Abenduaren 5ean atera nituen argazki hauek eta jarraian azalduko direnak dira erabilitako iturriak.

## Informazio-iturri pertsonalak

Francisco Etxeberria

Aurretik aipatu bezala, abenduaren 5ean Aranzadi elkartearen egon nintzen, e-posta bidez bertakoekin hitzordua adostu eta gero. Etxeberria forentsearen hitzak oso erabilgarriak izan dira erreportaje honetan, izan ere erakutsitako argazki eta informazioen bitartez, elkarteko lan prozeduraren nolakotasuna erakutsi nahi izan dut. Egun honetan egindako elkarrizketa hau zatika bereizi dut eta salaketa fotoerreportajerako eta fotoerreportaje narratiborako erabili dut.

Nicole Lambacher

Abenduaren 5ean argazkiak ateratzen nituen bitartean, laborategian Nicole Lambacher antropologarekin egon nintzen buruezur bat aztertzen zebilen bitartean. Berarekin hizketan egon nintzen eta bere lana ezagutzeko aukera izan nuen.

Oscar Rodríguez

Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkartearekin e-postaz kontaktuan jarri eta gero, Oscar Rodríguez-en telefono zenbakia lortu nuen. Berarekin elkarrizketa bat izan nuen telefono bidez otsailaren 27an eta lortutako informazioa Espainia mailan memoria historikoaren egoera ezagutzeko eta hau, gainera bada ere, islatzeko erabili dut.

## Informazio-iturri dokumentalak

Fotoerreportaje honen iturri dokumentalei dagokienez, albiste bat izan da lagungarria, aipatutako iturri pertsonalekin informazio nahikoa bainuen. Hau horrela izanda, *CanalSur* telebista eta irrati hedabidearen (2019) online albiste bat erabili dut, urtarrilaren 8an argitaratutakoa, Andaluziako Marmolejo herrian egindako omenaldi baten inguruan. Azken hau, Espainia mailako memoria historikoaren egoerarekin alderaketa egiteko asmoz erabili dut gehien bat.

### 5.3 Fotoerreportaje artistikoa

Fotoerreportaje artistikoa memoria historikoaren inguruko eskulturen inguruan egin dut. Egun desberdinetan atera ditut argazkiak hainbat lekutan egon naizelako. San Kristobalگو eskulturaren argazkiak martxoaren 11n atera nituen, Peralta herrikoak apirilaren 1ean, Sartagudako Memoria Parkeko argazkiak apirilaren 3an eta Gurseko omenaldikoak apirilaren 7an. Osotara, hogeita hamahiru argazki maketatu ditut honetan.

## Informazio-iturri pertsonalak

Paolo Albanese

Paolo Albanese Sartagudako alkatea da eta memoria parkearen argazkiak fotoerreportaje artistikoan sartzeko, parkeko bere ikuspuntua ezagutzea beharrezkoa zela iruditu zitzaidan. 2019ko martxoaren 30ean Sartagudako Udalarekin e-postaz kontaktuan jarri nintzen eta alkateak egunean bertan erantzun zidan. E-postaz galdera batzuk bidali nizkion, eta horrela behar nuen informazioa jakinarazi nion. Galdera horiek erantzuteko prest zegoela esan zidan eta nire telefono zenbakia eskatu zidan. Apirilaren 11n bere deia jaso nuen eta telefonoz hitz egin genuen.

Ana Ollo eta Josu Erkoreka

Apirilaren 7ko Gurseko omenaldian, Ana Ollo Nafarroako Hiri eta Instituzio harremanen kontseilaria eta Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramailea egon ziren eta ekitaldian zehar hitza hartu zuten. Horien berbaldietako ahots grabazioak hartu nituen eta euren ikuspuntua Gurseko omenaldiaren zatian islatu ditut.

Jose Ignacio de Sola

Jose Ignacio de Sola Irunen jaio zen eta 1936ko Gudan Frantziara erbesteratua izan zen bere familiarekin batera. Gurseko kontzentrazio-esparruan egon zen sei urte zituelarik eta 2019ko apirilaren 7ko omenaldira hurbildu eta bere bizipenak kontatu zituen. Bere istorioaren ahots grabaketa bat egin nuen eta hau ere fotoerreportajea aipatu dut.

## Informazio-iturri dokumentalak

Hasteko, *Noticias de Navarra* (2019) hedabidearen bi albiste erabili ditut informazio-iturri bezala. Batetik, martxoaren 30eko albiste bat Ardaitzeko amildegian (Nafarroa) gauzatutako deshobiraketa baten inguruan, eta beste albiste bat hedabide berean, 2018ko maiatzaren 9koa, Ezkaba mendiko monolitoaren berreraiketaren inguruan (*Noticias de Navarra*, 2018).

Bestalde, *Nai.eus* online hedabidearen (2019) albiste bat izan da lagungarria, otsailaren 1ekoa, “El Gobierno Navarro da inicio a la protección de los Lugares de Memoria Histórica” titulua duena. Hau, memoria historikoko tokiak, eta hortaz, babespean egongo diren tokiak zeintzuk diren identifikatzeko erabili dut, izan ere, horietako batzuk fotoerreportaje artistikoan agertu dira ondoren.

Peraltako eskulturaren inguruko informazioa lortzeko, Nafarroako Gobernuko (2016) Hezkuntza departamentuaren webguneko bideo bat erabili dut, izan ere bertan, Juan Carlos

Castillo herriko alkatearen hitzaldi bat azaltzen da eta horren aipamen bat erabili dut fotoerreportaje honetan.

Sartagudako memoria parkeko zatirako, bi informazio-iturri dokumental erabili ditut. Hasteko, Sartagudako Udalaren webgunea kontsultatu eta bertan Alargunen Elkartearen eta memoria parkea sortzearen helburuak hartu ditut informazio bezala. Bestalde, Nafarroako turismoaren webgunea parkeko informazio orokorra ezagutzeko erabilgarria izan da (Navarra.es, 2019).

Bukatzeko, *Diario de Noticias* egunkariaren (De las Heras, 2019) albiste bat kontsultatu dut Gurseko kontzentrazio esparrua eta bertan egindako omenaldiaren inguruan, fotoerreportaje artistikoan azaldu eta aipatzen dena.

## 5.4 Fotoerreportaje soziala

Fotoerreportaje honen gaia aukeratzean testigantzei eta horien protagonistei eman nahi izan diet garrantzia. Horregatik, 1936ko Gudako biktimen senideak bilatzea izan da lehen pausoa. Hogeita hamahiru argazki maketatu ditut osotara eta hauek egun hauetan atera ditut: Lidia Languizen etxean apirilaren 3an egon nintzen, Joaquín Urtasunen etxean apirilaren 8an egon nintzen eta Mertxe Benedéekin apirilaren 10ean egon nintzen. Iturri hauen inguruko informazioa jarraian azalduko da eta baita erabilitako informazio-iturri dokumentalak.

### Informazio-iturri pertsonalak

#### Lidia Languiz

Ezagun baten amona da eta horren bitartez jarri nintzen kontaktuan berarekin. Hasieran telefonoz hitz egin genuen eta geratzeko egun eta ordu bat zehaztu eta gero, Apirilaren 3an goizean bere etxera joan nintzen argazkiak atera eta berarekin hitz egiteko helburuarekin. Lidia Languiz Zangotza (Nafarroa) ondoko herri txiki batean bizi da eta bere etxean garaiko argazki gutxi dituen arren, jasotako testigantzak interesgarriak izan ziren.

#### Mertxe Benedé eta Joaquín Urtasun

Txinparta Fuerte San Cristobal elkartearekin kontaktuan jarri nintzen e-posta bidez martxoa bukaeran, esanez 1936ko Gudako testigantzen bila nengoela. Egun berean jaso nuen erantzuna eta Mertxe Benedé eta Joaquín Urtasunen telefono zenbakiak bidali zizkidaten. Bi pertsona hauek deitu eta lehenengo momentutik prest egon ziren nirekin hitz egiteko. Euren etxean geratu nintzen biek, izan ere bertan dituzte gordeta familia kideen dokumentu, argazki, epai eta bestelakoak. Aipatzekoa da bestalde, biek proposatu zidatela euren etxeetan geratzea, aurretik aipatutakoaz gain, erosotasun kontuengatik ere.

Joaquín Urtasunekin apirilaren 8an arratsaldean geratu nintzen, berarekin hitz egin eta aste bat geroago. Aipatu bezala bere etxera hurbildu nintzen eta bere familiaren istorioa kontatu zidan. Urtasunen osaba San Kristobalگو kartzelan egon zen eta heriotza zigorra ezarri zioten. Guadalajara (Gaztela-Mantxa) eta Alcalá de Henareseko (Madrilgo Erkidegoa) kartzeletan ere egon zen. Urtasunek datu hauek bere osaba hil eta gero lortu ditu, izan ere familiak ez zuen horren inguruan hitz egiten. Istorio hau kontatu eta gero, bere osaba izandakoaren kartzeleko dokumentuak erakutsi zizkidan eta bere argazkiak eta dokumentu horien argazkiak atera nituen. Ordu bat inguru egon nintzen berarekin.

Mertxe Benedérekin apirilaren 10ean goizean egon nintzen bere etxean. Benedéren osaba San Kristobalگو kartzelan preso egon zen eta fusilatu zuten. Kasu honetan, Mertxe Benedék ez zuen bere osaba ezagutu, eta aurreko kasuan bezala, familiak ez zuen inoiz ez gaiaren aipamenik egin. Mertxe Benedérekin bi ordu inguru egon nintzen eta erakutsi zizkidan dokumentuen artean, bere familiako argazki zaharrak, bere osabaren heriotza-ziurtagiria eta bestelako kartzeleko dokumentuak zeuden.

Miguel Torregrosa

Miguel Torregrosa Mertxe Benedéren senarra da eta frankismoaren biktimak izan diren senideak ditu. Mertxe Benedérekin bere etxean geratu nintzen egunean bere senarra ere bertan zegoen eta fotoerreportajea Benedéren istorioan zentratu naizen arren, Torregrosak ere bere senideek bizi izandakoaz hitz egin zuen eta bere modu laburrean bada ere, bere ikuspuntua erakutsi nahi izan dut.

Aipatzekoa da lau informazio-iturriek oso jarrera aktiboa erakutsi zutela beraiekin lehenengoz kontaktuan jarri nintzen momentutik, eta hunkitu zirela euren senideen inguruan hitz egitean.

Informazio-iturri dokumentalak

Iruñeko planetarioan aurkeztutako *Bajo Tierra - Lur azpian* izeneko erakusketara (Nafarroako Memoriaren Institutua, 2019) hurbildu nintzen apirilaren 2an, eta bertan informazio-iturri bezala erabilgarriak ziren zatien argazkiak atera nituen, informazio bezala interesgarria zena erreportajea islatu ahal izateko.

## 5.5 Kale-fotoerreportajea

Fotoerreportaje honen gaia Iruñako Gaztelugibel plazan Errepublika egunean urtero ospatzen den omenaldia da eta bertaratutakoak dira fotoerreportaje honen protagonistak. Hogeita hamabi argazki maketatu ditut osotara fotoerreportaje honetan. Apirilaren 13an izan zen omenaldia eta hortaz argazkiak egun horretan atera nituen. Jarraian azalduko diren informazio-iturri pertsonalak ere egun horretan lortu nituen.

### Informazio-iturri pertsonalak

Kale-fotoerreportajea Iruñeko Gaztelugibel plazan egindako Apirilaren 13ko omenaldian zentratu dut, erabilitako informazio-iturri pertsonalak egun horretan gerturatutakoen artean lortu nituen, eta egun horretan egin nituen elkarrizketen eta hitzaldien ahots grabaketak.

### Trini Larraza

Omenaldiko plazara iristean elkartu nintzen Trini Larrazarekin. Larraza, ezagun baten ama da eta hasieran ez nuen bere familiaren istorioa ezagutzen baina berarekin hitz egiten hasi nintzen eta bere izebak pairatutako errepresioaren inguruan hitz egin zidan. Horren ahots grabaketa bat egin nezaken galdetu eta baietza jaso eta gero, informazio bezala erabili nituen bere adierazpenak.

### Amaia Lerga eta Patxi Telletxea

Patxi Telletxea omenaldia aurkezteaz arduratu zen, eta ekitaldiaren sarrera eta bukaera hitzaldiak egin zituen. Iraupen handiko berbaldia ez izan arren, adierazpen labur batzuk erabilgarriak izan dira, eta horrela bestalde, iturri pertsonalen kopurua handitu dut.

Amaia Lerga Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteko presidenteordea da eta hitza hartu du omenaldiaren bukaera aldera. Lergak, bere hitzaldiaren bitartez, garrantzia eman nahi izan die erbesteratuak izandako pertsoneri, errepresioa pairatutako emakumei eta LGTBI+ kolektiboari. Bere adierazpenak, berari egindako argazki eta plano orokorreko zenbait argazkiekin batera erabili ditut.



Sara Cordón

Omenaldiko protagonista nagusia Mariano Saez Morilla izan zen, abokatu, irakaslea eta politikaria izandakoa, eta errepresioa sufritu eta gero, fusilatua izan zena frankismo garaian. Sara Cordón Mariano Saezen biloba da eta familiaren ordezkaria moduan egon zen omenaldian hitzaldi bat emateko eta bere aitonaren gorpuzkiak bilatzeko prozesua nolakoa izan den azaltzeko asmoz.

#### Informazio-iturri dokumentalak

Politikarien presentzia garrantzitsua izan da ekitaldi honetan eta garrantzia bertaratutakoei eman diegan arren, Ana Ollo eta Uxue Barkos ikusi nituen bertan. Politikari gehiago zeuden egiaztatzeko helburuarekin apirilaren 14ean, hau da, omenaldiaren hurrengo egunean, prentsa bisitatu eta *Noticias de Navarra* interneteko egunkariaren albiste bat erabili dut, omenaldiaren egun berekoa, bertaratutako politikarien berri izateko.

## 6. Etorkizuneko proiektuak

Aurkeztutako proiektuak denboran jarraitutasuna izatea du xede, hasieran zehaztutako helburuak bete direlako, denboran luzatzeko aukera dagoelako eta beste eremu batera eramatea posible delako. Proiektuan zehar garatutako fotoerreportajeak Nafarroan zentratu daude eta dokumentazio lanerako eta informazio-iturrien bilaketarako Nafarroako hainbat elkartekin jarri naiz kontaktuan, fotoerreportajeetan ikusi, eta gero prozesu hori azaldu dudan moduan. Elkarte hauetako kideen jarrera oso positiboa izan da eta informazioa eskaintzeko prest egon dira hasieratik. Hau horrela izanda, proiektua memoria historikoarekin zerikusia duen eta hau ekintza desberdinen bitartez sustatzen duen Nafarroako elkarte batean aurkeztea planteatu dut. Proiektua euskaraz idatzita dagoela ikusita, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkartean aurkeztea aukera onena dela uste dut. Dena den, Txinparta elkartearekin e-postaz kontaktuan jarri naiz ere eta proiektua eskaini eta hau aurkezteko proposamena plazaratu dut, gaiaren inguruan informatzeaz gain, sentsibilizazio ariketa bat egitea izan delako helburu nagusietako bat eta horretarako, elkarte hauek beharrezkoak direla uste dudalako.

Eremu pertsonalean ere bere tokia izan du proiektu honek. Fotoerreportaje sozialerako informazio-iturriak bilatzen negoela, nire familia kidei frankismo garaiko errepresaliaturen bat ezagutzen zuten galdetu nien, horrela bazen, istorioa entzuteko asmoz. Horien artean nire amona zegoen, eta bere osaba baten inguruan hitz egin zidan lehenengo aldiz. Izan ere, fotoerreportaje sozialean elkarriketatutako pertsonen egoera errepikatu da nire familian ere: Gaiari buruz ez hitz egitea. Nire amonaren osaba 1937. urtean etxetik atera eta atxiloturik kamioi batean sartu zuten beste pertsona batzuekin batera, eta hori izan zen horren berri izan zuten azken eguna. Nire amonak ez zuen bere osaba ezagutu baina bere izebaren hitzak gogoratzen ditu gaur egun. Ez zuten inoiz ez jakin non lurperatu zuten gorputza. Nire amonaren familia osoa Aragoiko herri batean bizi zen garai horretan eta gertaera honen berri izan nuenean A.R.I.C.O Aragoiko Memoria Berreskuratzeko Elkartearekin jarri nintzen kontaktuan e-postaz, bertako biktimen inguruko dokumentazioa izango zutelakoan. Maiatzaren 9an jarri nintzen beraiekin kontaktuan eta egunean bertan jaso nuen erantzuna. Miguel Angel Capapé elkarteko buruak artxiboetan horren inguruko dokumentazioa bilatzen zeudela aipatu zidan. Momentuan, horren erantzunaren zain nago.

Kazetaritza proiektu honekin harreman zuzenik ez izan arren, nire familian sakontzeko balio izan dit lan honek, eta etorkizun ez oso urrun batean nire amonaren osabaren gorpuzkien bilaketak, jarraikortasuna emanen dio proiektuari.

## 7. Bibliografia

Abasolo, P. (2019). “Iruñea frankismoan [IV] Errepresioa, 1936-1939”. *Ezkaba*, 261(261), 14-15.

Armada, A., eta Sanchez, G. (2010). *Imágenes de un siglo en España: una mirada a la historia y la vida cotidiana*. Madril: S.A Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales.

Baquero, J. M. (2015). “En doce años solo se han abierto 332 de las más de 2.000 fosas comunes que hay en España”. *eldiario.es*. Martxoaren 10a. Gizarte saila. Eskuragarri hemen: [https://www.eldiario.es/sociedad/muestra-Espana-abandona-victimas-franquismo\\_0\\_417858516.html](https://www.eldiario.es/sociedad/muestra-Espana-abandona-victimas-franquismo_0_417858516.html) [Kontsulta eguna: 2019/03/10].

CanalSur. (2019). “La Memoria Histórica hace justicia en Marmolejo”. *CanalSur* [On-line] Eskuragarri hemen: <http://www.canalsur.es/noticias/andalucia/jaen/la-memoria-historica-hace-justicia-en-marmolejo/1376665.html> [Kontsulta eguna: 2019/01/10].

Colon, E. (2013). “Las Tipografías más Comunes para los Periódicos”. *Infográfica comunidad de diseño* [On-line]. Eskuragarri hemen: <http://infografica.net/tecnologia/las-tipografias-mas-comunes-para-los-periodicos/> [Kontsulta eguna: 2019/05/02].

De las Heras, L. (2019). “Memoria reparadora en la ratonera de Gurs”. *Diario de Noticias*. Apirilak 8. Gizarte saila: 6.

Erausquin, A. (1995). “Ikus kodeak eta argazki informazioa”. *Fotokazetaritza programa teoriko-praktikoa* (132-152).

Ezkieta, F. (2017). *Los fugados del Fuerte de Ezkaba*. Iruñea: Pamiela.

Federación Estatal de Foros por la Memoria (2018). *10 años de la Ley de Memoria Histórica, y la propuesta para su reforma (2017)*. (3-4) Eskuragarri hemen: <https://www.foroporlamemoria.info/wp-content/uploads/2018/07/10-AÑOS-DE-LA-LMH.pdf>  
<https://m.noticiasdenavarra.com/2019/03/30/sociedad/navarra/exhumados-los-restos-de-dos-posibles-presos-de-la-fuga-de-ezkaba-en-la-sima-de-ardaitz-valle-de-erro> Kontsulta eguna: [2019/02/16].

Iribarren, T. (2018). “Las investigaciones elevan a 3.634 las víctimas del franquismo en el 36”. *Diario de Noticias*. Abenduaren 28a. Gizarte saila: 8.

Kowasch, A. (2017). “Presoen etxeko emakumeak”. *Tejiendo redes: mujeres solidarias con los presos del Fuerte de San Cristobal (1934-1945) Sareak ehotzen: San Kristobal Fuerteko presoekin elkartasuna izan zuten emakumeak (1934-1945)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua. (42).

52/2007 Legea, 2007ko abenduaren 26ko Memoria Historikoaren Legea. *BOE* (2007ko abenduaren 26a). Madril, 2007ko abenduaren 27a, 310 zenbakia, 53410-53412. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/boe/dias/2007/12/27/pdfs/A53410-53416.pdf>

Macías, S. (2003). “Navarra, Fuerte de San Cristobal, Pamplona”. Silva, E. & Macías, S. *Las fosas de Franco: los republicanos que el dictador dejó en las cunetas*. Madril: Booket. (307).

Nafarroako Gobernua (2016/11/14) *Homenaje a las mujeres represaliadas - Peralta - 8 -10 - 2016* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: <https://vimeo.com/191451583> [Kontsulta eguna: 2019/04/4]

Nafarroako Gobernua eta TRACASA. (2017/08/14). *Navarra: Visor de fosas*, eskuragarri hemen <http://fosas.navarra.es/> [Kontsulta eguna: 2018/12/20].

Nafarroako Memoriaren Institutua. *Lur azpian desobiratze goiztiarrak Nafarroan* erakusketa. 2019ko martxoaren 23a. Iruñeko planetarioa.

Naiz. (2019). “El Gobierno navarro da inicio a la protección de los Lugares de la Memoria Histórica”. *Naiz* [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20190201/el-gobierno-navarro-da-inicio-a-la-proteccion-de-los-lugares-de-la-memoria-historica> Kontsulta eguna: [2019/02/16]

Navarra.es (2019). “Parque de la memoria”. *Nafarroako erresuma* [On-line] Eskuragarri hemen: <https://www.turismo.navarra.es/esp/organice-viaje/recurso/Patrimonio/8162/Parque-de-la-Memoria.html> [Kontsulta eguna: 2019/04/30].

Noticias de Navarra. (2018). “Este sábado se inaugura el monolito reconstruido del monte Ezkaba”. *Noticias de Navarra*. Ekainaren 9a. Bizilagunen saila. Eskuragarri hemen: <https://www.noticiasdenavarra.com/2018/05/09/vecinos/cuenca-de-pamplona/este-sabado-se-inaugura-el-monolito-reconstruido-del-monte-ekzaba#Loleido> [Kontsulta eguna: 2019/04/6]

Noticias de Navarra. (2019). “Exhumados los restos de dos posibles presos de la fuga de Ezkaba en la sima de Ardaitz (Valle de Erro)”. *Noticias de Navarra* [On-line]. Martxoaren 30a. Eskuragarri hemen:

Pla, K., Querejeta, E., eta Errasti, L. (2018). *Lur azpitik lur-azeleratuz, que aflore lo enterrado*. Erakusketa. Huarte: Tuterako Udala, Txinparta Fuerte San Cristobal Red de Memoria Colectiva, eta Aranzadi Zientzia Elkarte.

Sartagudako Udala. “Asociación “Pueblo de las Viudas” de Sartaguda”. *Sartagudako Udala*. Eskuragarri hemen: <http://sartaguda.net/asociacion-pueblo-de-las-viudas-de-sartaguda/> [Kontsulta eguna: 2019/04/30]

Vazquez, R.I (2017). “En busca de una metodología”. *El Proyecto fotográfico personal*. Madril: JdeJ Editores (24-25).

## 7.2 Elkarrizketak eta hitzaldiak

Amaia Lerga, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteko presidenteordearen hitzaldia (2019-04-13).

Ana Olló, Nafarroako Hiri eta Instituzio Harremanen kontseilariaren hitzaldia (2019-04-07).

Fermin Ezkieta idazleari egindako elkarrizketa (2018-12-05).

Joaquín Urtasun, biktima baten senideari egindako elkarrizketa (2019-04-08).

Jose Ignacio de Sola Gursen izandako errefuxiatuari egindako elkarrizketa (2019-04-07).

Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramailearen hitzaldia (2019-04-07).

Lidia Languiz, fusilatu baten senideari egindako elkarrizketa (2019-04-03).

Mertxe Benedé, fusilatu baten senideari egindako elkarrizketa (2019-04-10).

Miguel Torregrosa, fusilatu baten senideari egindako elkarrizketa (2019-04-10).

Nicole Lambacher antropologoari elkarrizketa (2018-12-05).

Oscar Rodríguez Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elkarteko kideari elkarrizketa (2019-02-27).

Paco Etxeberriari egindako elkarrizketa (2018-12-05).

Paolo Albanese Sartagudako alkateari egindako elkarrizketa (2019-04-11).

Patxi Telletxearen omenaldiaren aurkezpena (2019-04-13).

Sara Cordon, Mariano Saez fusilatuaren bilobaren hitzaldia (2019-04-13).

Trini Larraza errepresioa pairatutako senideari egindako elkarrizketa (2019-04-13).